

Eskapada **Bizkai berdera** **Natura!**

Barne-
bidaia bat

Natura-parkeak
Natura
eta paisaiak



Turismo
jasangarri eta
arduratsuago
baten alde

**OBJETIVOS
DE DESARROLLO
SOSTENIBLE**



BILBAO BIZKAIA

Natura !



Txartel honekin, dirua aurreztuko duzu, eta benetan eroso planifikatuko duzu Bilbo-Bizkaiko egonaldia, abantailak dituelako garraio publikoan, museoetarako sarreretan, ikuskizunetan, jatetxeetan, dendetan eta beste aisialdigune batzuetan. Eska ezazu Bilbo Turismoren edozein bulegotan edo hemen:


www.bilbaobizkaiaecard.com

2024ko Uztaila / Laugarren edizioa

Argitaratzailea: Bilbao Bizkaia be Basque

Argazkiak, turismoko esku-orrien bilduma: Beste egile batzuk

D.L.: BI-0067-2015

Hunkitu egingo zaitu hauek BISITATZEAK 6 Natura-parkeak Topaguneak Gailurretaraino Espezieen bizilekuan Katedral naturalak Goitik begiratzeko behatokiak Ingurunearen bizilagun Erdi Aroko ondarea, ohiturak eta hiribilduak 	Seduzitu egingo zaitu hemen PASEATZEAK 26 Bilboko Eraztun Berdea Oma, baso margotua Bide berdeak, ziztu bizian Santiago bidea 	
Gogoko izango duzu hauek EGITEA 32 Ibilbideak zaldi gainean, bizikletaz edo oinez Lurrean edo zeruan Buru eta bihotz 	Liluratuko zaitu hona JOATEAK 36 Herriz herri Nekazaritza- eta abeltzaintza-azokak XXI. mendeko ohiturak Benetako pasioz Mila ehuni, euskal pilota Lana kirol 	Askok gustatuko zaizu hauek EROSTEA 44 Nortasun-produktuak 
Atsegin izango zaizu hauek JATEA 46 Guk hazitakotik jaten dugu 0 Km Etxeko sukaldea, jatetxe Lehiaketak eta dastaketak Izarrak hiritik kanpo Pintxoak 	ESPERIENTZIAK SAREAN 52 Ikaragarri gozatzeko proposamenak	TOP BERDEA 54 Ezinbesteko baliabideak
BIZKAIA MAP 56 Xehetasunik galdu gabe orienta zaitezten	58 & BIDAIA JASANGARRI ETA ARDURATSUAGO BATEN ALDE INFOPRAKTIKOA   	

Natura !

Bizkaia ezin dugu ulertu itsasoaren eta barrualde berdearen arteko uztartekarik gabe, kobazuloetako altxorak barne hartuta. Orrialde hauetan, alde berde horretara bidaiaituko dugu: handitasunez agertzen zaigun natura, zeruraino altxatzen diren mendiak, larre lasaiak marrazten dituzten ibarrak, baratzedun baserriak... Bisitan, ezerk ez zaitu epel utziko. Bide berdeetatik **paseatuko** duzu, bazter bakanetara hurbilduko zaituzten trazaduretatik. Natura-parkeak **bisitatuz** gero, basatia ere izan daitekeen naturak inguratuko zaitu. Izugarri gustatuko zaizu azoketara eta kirol-txapelketetara **joatea**, tradizioak grinaz bizitzen baitira horietan. Oso esperientzia gomendagarria da zentzumenak **erabiltzea** gazta edo taloak egitean eta, jakina, betiko jatetxe batean edo izardun jatetxe batean **bazkaltzea** edo ostalaritza-establezimendu ugarietako barrak apaintzen dituzten pintxoak dastatzea. Eta, etxera itzultzen zarenerako, ez ahaztu oroitzapen ahaztezin bat gogora ekarriko dizuten jaki zoragarriak **erosteaz**.



Betitik dugu oso izaera
NATURALA

Gorbeiaiko natura-parkea

NATURA- PARKEAK

aire garbia motxilan sartuta

Eder-eder margotutako koadroak diruditen paisaia nortasundunak, natura miresgarritz gainezkatuak. Bizkaiko geografiako natura-parkeak bisitatzea pribilegio hutsa da. Edonorentzako modukoak dira; zentzumenak afinatu eta sedukzioan erori besterik ez da egin behar. Ibilbidean, bertakoengana eta haien bizimodura hurbilduko zaituzten herriak aurkituko dituzu. Bete-beteko esperientzia.



www.basquemountains.com/eu

Urkiolako natura-parkea

URKIOLA

Paisaia guztiz euskalduna da: malkartsua, berdea eta haitzez betea, eta, bertan, **Anboto** mendia (1.330 metro) da protagonista. Bertako kobazuloetan, legendak mito bihurtu dira, eta, horien artean, Mari nabarmentzen da, jeinu guztien erregina, haitzaren horma bertikalean bizi dena. Parkean, elkarren segidan ikusiko dituzu haitz altuak, bailarak eta sakanak, mendizale ugari biltzen dituzten tokiak horiek.

Urkiolako santutegia ere bertan dago, bikotekide-bila dabiltzanentzako erromesgunea. Harriari hiru bira eman, eta kito.

www.urkiola.net



Armañongo natura-parkea

ARMAÑÓN

Mendigune honek Kantabriarekiko muga markatzen du, Enkarterri eskualdean, eta **Armañongo** gailurra nabarmentzen da gorenko altitudetan (854 m). Mendigunean, landa-izaera duten muinoak eta gainalde menditsuak tartekatzen dira. Inguruetan, 200 kobazulo eta leize baino gehiago daude (**Pozalaguako kobazuloak** nabarmentzen dira, zeinak "Espainiako 2013ko txokorik onena" izendatu baitzuten Repsol gidak), eta, horietan, munduko estalaktita eszentriko gehien biltzen dira.

www.visitenkarterri.com/eu

GORBEIA

Gorbeia dugu Euskadi jatorreneko beste toki bat, non Bizkaia Arabarekin partekatzen baitu lurraldea. 1.482 m-ko gailurrak markatzen du muga. Inguruak, bada, haitz malkartsu eta kobazulo ugariekin konbinatzen ditu larre bigunak, pagadiak eta hariztiak. **Mairulegorretako kobazuloa** gailentzen da, 12 km baino gehiagokoa, **Itzinako biotopo babestuan** dagoen Itzinako karstarekin batera.

eu.gorbeiaeuskadi.com



Gorbeia natura-parkea



Anboto

TOPAGUNEAK

Munduko mendi-espedizio handietan ibiltzen diren izenei begiratuta, asko eta asko euskaldunak direla ikusiko duzu, eta erabat ulergarria da. Izan ere, mendi-formarekin geografia zipriztintzen duten paradisu natural ugariak oso erakargarriak dira. Gailur batzuek esanahi kultural handia daukate Euskadin.

Halaber, mendizaletasunarekin lotutako askotariko jarduerak egin ahalko dituzu: eskalada, trekkinga, espeleologia, mountain-bike, mendi-ibiliak, orientazioa, multiabentura... Bizkaiko edozein naturagune da goatzeko eta arima hedatzeko aparta.



A GOOD IDEA!

Besaide oso toki berezia da, hainbat alderdik egiten baitute mendi enblematiko: gailurrean, Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten hiru lurraldeek bat egiten dute. Hantxe bertan, mendizale desagertuari egindako monumentua dago, eta, gailurraren azpi-azpian, "Bizi-iturria" izeneko beste bat altxatu zuten. Gailur estrategiko honetatik behatzen diren ikuspegiak bikainak dira benetan. Zentzuzkoa da mendizaleentzako gurtza-tokia izatea.

GAILURRE- TARAINO

KANTAU RI ITSASO A



Deiadarra

Deiadar-mendiak

Honako bost gailur hauei esaten zaie deiadar-mendi: Gorbeia, Kolitzari, Oizi, Solluberi eta Ganekogortari. Kondairen eta tradizio herrikoia araberak, haien kokapen estrategikoa dela-eta, Bizkaiko Batzar Nagusietara deitzen zen gailurrotatik, suen eta korneten bidez.

11



Gorbeia

Naturaren parkeak

Espezieen BIZILEKUAK

12

A
GOOD
IDEA!

BBK Karpin Fauna, familia-giroan egin dezakezu egun-pasa. Zure jatekoa eramateko eta bisita erakargarri honetan atseden hartzeko guneak daude.

Ipar-katamotza

Pumak, mapatxeak, hudoak, dortokak, tximinoak eta abar ehizatik, legez kanpoko trafikotik, itxitako hazkuntza-abeltegietatik edo itxian hazteko jaiotzetatik datozen besteak beste. Bada, **BBK Karpin Fauna**ko biztanleak dira: zentroa **Karrantza Haranean** dago, eta haien ingurunean bizi ezin diren animalien arretan espezializatutako harrera-parkea da.

Animalion istorioa oso tristea izaten da. Zentroak sentibilizazio-lanak egiten ditu, argi izan dezagun animaliak erosteak erantzukizunak dakartzala, animalia exotikoak maskotatzat hartzeak legez kanpoko trafikoari laguntzen diola, ehiztariek espezie babestuak errespetatu behar dituztela eta, oro har, izaki bizidunak direla eta ez merkataritzarako edo dibertsio hutsarako xedea.

bbkkarpinfauna.eus/eu



BBK Karpin Fauna



Belatz handia

Urdaibairen inguruetan, **Basondo** dago, basafauna mehatxatuari (hala nola, basurdeei, azeriei, orkatzei, katamuturluzeei, basakatuei eta urtxakurrei), narrastiei, hegazti harrapari eta migratzaileei eta dagoeneko desagertuta dauden espezieei (esaterako, katamotzei, bisonte europarrari eta otsoei) aterpe ematen dien 60.000 metro karratuko parkea. Eta ez dugu **Urdaibai Bird Center** ahaztu behar, biosferaren erreserban bertan hegaztiak behatzeko toki paregabea. **Urduñatik**, halaber, **Gorobel mendilerroan** hegaztiak behatzeko irteerak antolatzen dira.

www.basondo.com/eus
www.birdcenter.org

Ekoturismoa natura aktiboa

Paisaiatz eta bizipen ugari gozatzeko bidea jartzen duten natura-baliabide asko biltzen ditu Bizkaia.

Natura-ingurunea eta bertan bizi diren bizimodua interpretatzeko ibilbideak daude; batzuek interpretazio artistikoak dauzkate (adibidez, **Omako basoak**), eta beste batzuk pertsonaia mitologikoz eta kondairaz beteta daude.



13

Era berean, fauna eta flora autoktonoak nahiz hegaztien iragakeak ikusi ahalko dituzu, edota programatutako jardueraz eta paseoez gozatu eta aire zabalean kirola egin.

Hori guztia eta gehiago aurkituko duzu bisitan, ziur: zirkuitu masifikatuetatik kanpo bidaiatzeko helmuga bikaina da Bizkaia, natura izango duzulako bidaide.

KATEDRAL

naturalak

Hurbileko harrobi bateko lanek **Pozalaguako** altxorra aurkitu zuten: 125 metroko zuloa da, eta munduko estalaktita eszentrikoen kontzentrazioirik handiena dauka. Naturaren sorkuntza ikusgarria da, gero, **Karrantza Haranean** ikus dezakegun hori.

Kortezubiko **Santimamiñe** ere oso kobazulo interesgarria da, animalia askoren labar-margoak (hartz arreak, bisonteak, oreinak...) eta aberastasun geologiko handia baitauzka, estalaktitik eta estalagmitak batzearen ondoriozko zutabe ederderrei esker.



Baltzolako kobazuloak, bestalde, natura-indarrez eta eduki mitologikoz betetako agertokia eskaintzen du **Arratiako bailaran**. Izan ere, erraz ibiltzeko moduko galeria ugari joan dira sortzen arroken artean, berdeen gama osoa estaltzen duen ingurune batean, Bizkaiko paisaia bitxienetako bat sortuz.

Pozalaguako kobazuloak Repsol gidaren 2013ko Txokorik Onenaren saria jaso zuen. Bisitatu ezazu.

www.cuevadepozalagua.eus




GOITIK BEGIRATZEKO behatokiak

16

Nerbioiko ur-jauzia

Delikako arroilaren gainean amildegira ateratzen den balkoia tokirik ikusgarrienetako bat da, eta **Nerbioiko ur-jauzitik** metro batzuetara dago. **Urkiolako santutegiaren** ondoan beste behatoki bat dago; han, **Hiru Gurutzeen behatokian** amaitzen den bidea marrazten du gurutze-bide batek, **Atxarteko haitzartearen** eta **Durangaldearen** panoramika paregabea eskainiz. **Karrantza Harana** behatzeko, zoragarria da **Gertakari Onaren Andre Maria** zaindariaren monumentua duen behatokia. Bilboren mugan, hiriaren panoramika ederra eskainiz, Artxanda duzu. Nerbioi itsasadarraren bi ertzak kontrolatzen, berriz, **Serantes** dago, defentsa-gune estrategikoa; Meatzaldean, aldiz, Gallartatik hurbil, **Bodovalle meategiaren** ilargi-paisaia behatuko duzu (1993an utzi zioten meategia ustiatzeari). **Pozalaguan**, ez ezazu galdu Armañongo natura-parkearen barruko behatokia, eta, Zallan, **Ilsokoa** izango duzu zain, ilunabar ikusgarriak behatzeko aparta.



Pozalagua

17



Bodovalle



Ilso

Ingurunearen bizilagun

18



Ezin duzu esan Bizkaian egon zarenik, baserrietako landa-giroarekin eta ia beti idilikoa den baserri-ingurunearekin nahastu ez bazara. Zure eskapadan aintzinako euskal etxea oinarritzat hartzea aukera bikaina da, are gehiago orain, zure egonaldia bene-benetakoa egingo duten erosotasunez eta esperientzia ugariz betetako landa-turismoaren eskaintza hain handia izaki.



Gazta

A
GOOD
!
IDEA !



Egun batez artzain

Ez dago lurralde bat ezagutzeko modu hoberik, toki horretan ondo egiten dakitena egitea eta esperientzia partekatu batean gozatzea baino.

Egun batez artzain izateko proposamena ideietako bat da, eta are hobe familiarteaz gozatzen baduzu.



Lehen eskutik

Gauzak ondo egiten dakizunez, martxan jartzea iradokitzen dizugu. **Gazta** egitea aukeratzeko baduzu, esperientzia benetakoa izango da. Paisaia liluragarri batean, Urkiolako natura-parkean, gaztandegiko artzainarekin partekatuko dituzu haren eguneroko zereginak: ardiak jetzi, ilea moztu (garaia bada), gazta freskoa edo **mamia** egin... Gorbeia natura-parkean ere jarduera bera egin dezakezu.

Eta, produktuak eskuekin lantzea gustatzen bazaizu, taloak egiten ikastea da beste ideia bat.

www.bizkaikoa.bizkaia.eus/?idioma=EU
www.visitenkarterri.com/eu/

19



Taloa

Erdi Aroko ondarea, ohiturak eta hiribilduak

INGURATU ZAITEZ BERDEZ

Ondare-aberastasuna atsegin baduzu, Bizkaiaren barrualdea historiaz eta ohiturez beteta dago: bisitatzeko moduko toki ugari eskaintzen dizkizun aukera interesgarria da. Monumentuen balioaz gain, ingurua ederra da: naturak bere handitasun guztia erakusten du Bizkaiko geografian.

Ikusiko duzu.

Durango

URDAIBAI



Herri honen bihotzera barneratu zarela esan nahi baduzu, ezinbestean joan behar duzu **Gernikako Batzar Etxera**. Esanahi handiko monumentu-multzoa da, eta garai bateko Antiguako Andra Mariaren elizan dago; hainbat gela dauzka, eta Arbola erdigunean.

Gaur egungo eraikina estilo neoklasikokoa da, eta elizaren eta parlamentuaren eginkizunak biltzen ditu. Ibilbidean, **beirate** zoragarri bat ikusiko duzu, Batzar Etxeko gelaurrean; beiratean, bada, Bizkaiaren alegoria bat egiten da, arbola eta foruak (*Lege Zaharra*) irudikatuz. Lurraldeko eraikin enblematikoenen eta aberastasun-iturri nagusien bidez agertzen dira Bizkaia osatzen duten lurraldeak; hala nola, meatzaritza, industria, arrantza eta nekazaritza irudikatzen dira.



Gernikako Bakearen Museoa



Gernikako Batzar Etxea

Gernika-Lumo hiribilduak interes handiko beste gune batzuk dauzka; besteak beste, **Bakearen Museoa** edo **Euskal Herriko Museoa**, **Andre Mariaren eliza** eta **Europako Herrien parkea**, non Txillidaren edo Henry Mooreren eskulturak baitaude. Beste ideia interesgarri bat da **Jai Alai** frontoia bisitatzea: zesta-puntaren frontoi mitikoa da, harrizko frontisa, errebotea eta lurzorua dituen bakarra.

A
GOOD
IDEA

Batzar Etxearen bihotzean zaude: haritz honen azpian, batzarkideak elkartzen ziren Bizkaiko Jaurerriko Batzarrek egiteko. Benetako sinbolo honek herriko Arbola bihurtu du haritza.

URIBE



Eskualde hau marinel-herriek osatzen badute ere (hala nola, Bakiok, Barrikak, Plentziak eta Sopelak), ez ditugu bazter utziko itsaslabar zorabigarrietan amaitzen diren bailara zabal, lau eta leunak.

Eskualde honetan, **txakolin** asko ekoizten da. Halaber, Erdi Aroko ibilbide interesgarri bat egin ahaliko duzu, non Erandioko **Martiartu dorrea**, Mungiako **Torrebillera** dorretxea, Zamudioko **Zamudiotorre** dorrea, Larrabetzuko eta Plentziako **hirigune historikoak** eta **Butroeko gaztelua** nabarmetzen baitira. **Burdin Hesia** ere interesgarria da, Behin-behineko Eusko Jaurlaritzak Bilbo defendatze aldera egindako eraikuntza belikoa.

www.uribe.eu/hasiera



Butroeko gaztelua

DURANGALDEA

Durangok monumentu-ondare aberats eta askotarikoa dauka; halere, hirigune historikoa gailentzen da, Erdi Aroko egiturari eusten baitio oraindik ere.

Arkitektura-erakusgarriaren artean, **Santa Anaren atea**, Uribarriko **Andre Mariaren eliza** eta **Kurutziagako gurutzea** nabarmentzen dira. Gurutze hori XV. mendearen amaieran egin zuten, kareharritz, eta benetan deigarria da, bai neurriengatik, bai ikonografia nabarragatik; kritikari batzuek apaingarri askoko estilo gotikoan kokatzen dute. Gaur egun, Vera Cruz basilizan ikus daiteke, **Kurutzesantu Museoa** bihurturikoa.

Udalerria **Urkiolako natura-parkean** kokatuta dago, **Urkiolako santutegia** hartzen duen tokian, erromesaldien eta erromeria tradizionalen agertokian.



Urkiola


www.durangaldeaturismoa.eus · www.turismodurango.net · www.elorrioturismo.eus



Elorrio

Elorrio hiribilduak monumentu-ondare ikaragarria dauka, bereziki aberatsa jauregi eta armarridun etxeei dagokienez. Tokiko familiek Mundu Berriko merkataritzan parte hartu zuten, aberastasuna iritsi zen herrira: leinu-etxe eta jauregi ugari eraiki zituzten.

Hiribildua, halaber, aberatsa da hila-rrri eta hilobietan. Hainbeste dira, ezen **Argiñetako** nekropolia sortu baitzen; besteak beste, 893. urteko piezak daude bertan, Kristautasuna zonaldera iritsi zenekoak. Hilarriak, sarkofagoen aurretikoak, Kristautasuna heldu baino lehenagokoak dira.



Argiñeta



Urduña

GORBEIALDEA

URDUÑA

Arratiako bailaran kokatuta, **Urduña** da hiri-titulua daukan Bizkaiko herri bakarra.

Monumentu-multzo historiko gisa dago katalogatuta, eta, interesezko ondare-erakinen artean, **Andra Mariaren eliza gotortua**, **Familia Sakratuaren tenplua**, **Antzinako Aduana**, **plaza arkupetua** eta, plazatik 10 minutura oinez joanda, **Antiguako santutegia** daude.

Ingurunezko aberastasun ekologiko eta paisajistikoa agerikoa da **Gorbeia**ko **natura-parkean** (**Orozko** herritik iritsi ahal zara bertara).

eu.gorbeiaeuskadi.com

ENKARTERRI



Enkarterri da Bizkaian mendebalderen dagoen eskualdea, eta landa- nahiz ondare-inguruneagatik nabarmentzen da. Lurralde historikoko hiribildurik zaharrena **Balmaseda** da, eta, bertan, besteren artean, Kadagua ibaiaren urak saihesten dituen XIII. mende-

ko zubi zaharra gailentzen da, Erdi Aroko kale txikiz jositako **hirigune historikoa** babesten duena. **La Encartada** antzinako ehun-fabrika, batez ere txapelak egiten zituzten; 1892an inauguratu zuten, eta berdin-berdin jarraitzen du: garai hartako eraikinek, makineriak eta langile-koloniak nahitaez ikusi beharreko museo bat osatzen dute gaur.



Balmaseda

Enkarterriko ondareak ezin konta ahal sorpresa eskaintzen dizkigu. Galdamesen, XIV. mendeko gotorleku batek Miguel de la Vía bildumako Rolls Royceak ezkutatzeko (Europako bildumarik handiena da hori). **Loizaga dorreaz** ari gara: 1910etik 1988ra bitartean fabrikatutako modelo guztiak daude bertan, luxuzko beste marka batzuek gainera.



Loizaga dorrea

Sopuertan, Erdi Aroko dorre batean, Abellanedako Batzar Etxea dago, gaur egun **Enkarterrietako Museoa** dena. Gure historiaren zaindaria da, eskualdearen historia, ondarea eta etnografia ikertzeko eta hedatzeko gunea.



Enkarterrietako Museoa

www.visitenkarterri.com

Meatzaldea

Meatzaldean, Trianoko mendietan, Bizkaia bere industria-iraultza abiatu zuen, aire zabaleko meategiak ustiatuta. Paisaiak itxura aldatu du, baina iraganeko aztarnak atzeman daitezke lurra-aren erdigunerainoko ibilbide honetan.

Zugaztietan, Europan ondoen zaindu diren meatze-herrixketako bat dago, non **antzinako etxebizitza** bat birgaitu baitute, bertara bisita egiteko aukera izan dezagun; hara iristeko, **Larreinetako funikularra** har dezakegu.

Burdinak Bizkaia-aren ekonomia-garapenean izandako garrantzia ulertzeko, **El Pobaleko burdinola** bisitatuko dugu, Muskizen (larunbateko bisitetan, zuzeneko erakustaldiak egiten dituzte), baita **Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa** ere, Gallartan.



El Pobaleko burdinola



Meatzaritzaren Museoa

LEA-ARTIBAI MARKINA-XEMEIN



Lea-Artibai eskualdean kokatuta, euskal kostaldean zeharkatzen duen Santiago bidean sartuta dago Markina-Xemein, eta horrek azaltzen du udalerriak Erdi Aroko trazadura edukitzea. **Arretxinagako San Migel** basiliza bitxia da ikusteko: oinplano hexagonalak dauka, eta monumentu megalitiko harrigarria dauka aldarean.

Ziortzako monasterioa eremuko harribitxiak bat da, eta, Erdi Aroan eta Errenazimenduan, Santiago bideko toki garrantzitsua zen; **gainera, Euskadiko Monumentu Nazional** izendatu zuten.

Ziortza-Bolibar herri hurbilean, non «askatzailearen» arbasoak bizi izan baitziren, **Simon Bolibar Museoa** ikus dezakezu, haren irudiari eta Erdi Aroko bizimoduari buruz gehiago jakiteko.

www.leaartibaiturismo.com/eu



Arretxinagako San Migel



Ziortzako monasterioa

BISITATZEKO BESTE TOKI BATZUK

Burdin Hesia

Gerra Zibilean, Bilbo, industrialdea eta portua estrategikoki ondo kokatutako fronte finko batetik defendatzeko gotorlekuak egin zituzten, eta gotorleku haien hondarrei jarraitzen die ibilbide honek. **Burdin Hesiak** Barrikatik Galdakaoraino eta hortik Zierbenaraino estaltzen du lurraldea. Erasoaldi arrakastatsuak, ordea, eraikuntzaren gunerik ahulenak izan zituen jomuga; izan ere, aurkariak obraren ingeniariaren laguntza izan zuten, bando nazionalari eman baitzizkion planoak.

Munarrikolandako gailur-lerroan, obra militar ikusgarri haren hondarrik ikusten dira; hala nola, bunkerak, zaintza-guneak, metrailadore-habiak...

Informazio gehiago jasoko duzu Burdin Hesiaren Interpretazio Zentroan, Berangon.



Gaztelumendiko bunker bat (Larrabetzu)

Meatzaldeko Ekoetxea, meategien bihotzean



Funicular de Larreineta

Meatzaldeko Ekoetxea ingurumen-entzako bat da, eta meatze-lurralde karstiko baten bihotzean dago. Bi egoitza dauzka (Ortuellan bata, Penas Negrasen, eta Abanto-Zierbenan bestea, Gallartan), laku artifizialek, basoek edo txilardiek eragindako kontrastez beteriko paraje batean.

Ez zaitez hemendik igaro **Zugaztieta** auzoan babarrun eder batzuk dastatu gabe (ia-ia mendea bete duen **Larreinetako funikularrean** iritsi zaitezke bertara).



Zugaztieta

12,250.000 m²

24 m² /biztanle

21 parke

5 basogune

99,3 km GR

Azken urteetan, kolorea aldatu du duela gutxi arte grisa zen Bilbok. Gaur, hiribildua atseginagoa da, eta berdeguneak lehengoratu edo sortu izana elementu giltzarria izan da hiriaren eraldaketan. Hiri-parkeek eta baso-guneek osatzen dute eskaintza. Lehenengoek 200 hektarea betetzen dituzte, 21 parketan banatuta. Baso-guneek, berriz, 1.025 hektarea osatzen dituzte, bost arlotan zatituta (**Artxanda, Iturririxualde mendia, Arnotegi, Pagasarri eta Arraiz**), aisialdirako 21 gunerekin. Toki horietan, haurrentzako jolasguneak, mahaiak, barbakak, bankuak, informazio-kartelak eta kartel panoramikoak daude.

Horri, hirigunea inguratzen duen Ibilbide Handia gaineratu behar zaio: 99,30 km-ko ibilbidea da, eta baso-parkeak zeharkatzen ditu, **Eraztun Berdea** osatuz. Ibilbideen eta toki interesgarrien erreferentziekin eta informazio orokorrekin seinaleztatutako bidexkez, bidez eta kalek osatutako azalera itxia da. Bilboko hainbat tokitatik irits zaitzke bertara, ardatz nagusira daramaten hamaika trazaduren bidez.

Funikularra hartu eta Artxandara igo besterik ez duzu egin behar, mendi horrexek eskaintzen baitu "Botxoren" ikuspeirik onena (hiriak izen hori hartu du, mendien arteko zulo batean dagoelako). Behatokitik, panoramika izugarri batez gozatuko duzu; besteak beste, Alde Zaharraren, Zabalgune dotore eta berri-tzailearen edo Guggenheim museoaren ikuspegi paregabeak daude.

Bilbon jada, aukera ona da Casilda Iturrizar parkeko pasealeku berdeetan zuhaitzen artean ibiltzea.

Turista on ororen sosegua.

A
GOOD
IDEA!

Artxanda

Casilda Iturrizar parkea

ERAZTUN BERDEA BILBOKO



OMA

baso margotua

Oma basoa sorginduta dago: zuhaitzen enborrak halako moldez daude margotuta, ezen irudi batzuk toki jakin batzuetatik baino ezin baitira ikusi, hainbat enborrekin baterako irudiak sortzen direlako.

Agustin Ibarrolak margotu zuen basoa, eta, hasieran, 47 irudi zeuden. Denborak eta basoaren prozesu naturalek aurrera egin dutenez, baina, beste kokapen bat behar izan da, eta galdutako multzo batzuk berreskuratu dira; hala nola, Kordobako mezkita, Haritzari egindako omenaldia, Mehatsu nuklearra eta Bi dimentsiotako diagonalak.



Urdaibai

Gaur egungo 34 multzo artistikoak 800 zuhaitz ingurutan daude jasota, eta Korte Zubin beha daitezke, Urdaibaiko biosferaren erreserban kokatutako herri txiki landarrean.

Basora barneratu ahala, irudiek bizia hartzen dute, eta artelanaren bi eta hiru dimentsioei esker sortzen eta eratzen dira baterako figurak.



BIDE BERDEAK

ZIZTU BIZIAN

Dagoeneko erabiltzen ez diren trenbideak birmoldatuta sortu dira bide hauek. Birmoldaketak ez du xede izan ekoturismoaz gozatze aldera trazadurak egokitzea bakarrik, ibilbideon balio kultural, historiko eta praktikoa berreskuratzea ere izan baita helburua.

Bizkaian, hainbat **bide berde** daude, oinez nahiz bizikletaz ibiltzekoak. **Burdin Mendietako** bide berdeak Arzentales eta Zierbena lotzen ditu, eta 42,5 km luze da; bada, Enkarterri eskualdeko hainbat bailara zeharkatzen ditu. **Atxurikoak** 3,8 km dauzka, eta Sondika eta Mungia lotzen ditu.

Arratzolako bide berdea Atxondoko bailaratik igarotzen da: 5 km dauzka, eta oinezkoentzat da egokiagoa. **Itsaslurrekoak** Pobeña eta Kobaron (Muskiz) auzoak lotzen ditu, eta kostaldearen ikuspegi izugarriak eskaintzen ditu bere 2,2 km-etan.

Balmasedaren eta Alonsotegiren arteko ibilbideak, **Kadaguakoak**, La Roblako trenbide zaharrari jarraitzen dio, eta aukera ematen du Kadagua ibaiaren ibilgutik (18 km) paseo bikaina emateko. Ortuellan, **Orkonerako** antzinako meatze-trenbidearen 3,7 km-ko tartea berreskuratu da.



Seduzitu egingo zaitu hemen

Natura! PASEATZEAK

Kostaldeko edo Iparraldeko Santiago bidea erromes-ibilbide zaharretako bat da, eta Euskadi landatarrarekin batera bizi den Euskadi itsastarra zeharkatzen du, baita Euskadi landatarrarekin uztartzen den Euskadi hiritarra ere. Gipuzkoatik dator, eta Markina-Xemeinetik sartzen da Bizkaira; gero, lurraldearen barrualdea zeharkatzen du, Bilbora iritsi arte, eta, hortik, Enkarterrira abiatzen da, Kantabriara igaro aurretik Muskizko kosta ukitzeko.



SANTIAGO bidea

Zalla (Enkarterri)



IPARRALDEKO bidea

Kostaldeko edo Iparraldeko bideak marinel-herriak zeharkatzen ditu, kostarekin paralelo, Gipuzkoatik Kantabrianantz.

Besteak beste, Markina-Xemein, Gernika-Lumo, Larrabetzu, Lezama, Zamudio, Bilbo, Sestao eta Pobeña ukitzen ditu.

Bide AHAZTUA

Bilbotik Vilafranca do Bierzorainoko (Leon) ibilbide zahar bat da, eta, 1993tik hona, 21 etapatan berreskuratu da.

Ibilbidea Alonsotegitik, Sodupetik, Gueñetik, Zallatik eta Balmasedatik igarotzen da, eta erromatarren garaiko nahiz Erdi Aroko galtzaden, zubien eta elizen hondarrak behatzeko aukera ematen du, baita Santiagoko ikonografia duen arte erromanikoa ikustekoa ere.

Ondare-bitxi horien artean, interes gorenekoak dira honako hauek: Bilboko Santiago katedrala eta Santiago plazatxoa, Kadagua ibaiaren gaineko Deabruaren zubia eta Iturriagako Done Martie basiliza (Gueñes).



Deabruaren zubia

Natura, jokaleku KIROLA AIRE ZABALEAN

32



Mendi garaiek, muino leunek eta landa-esparru garbi batean kokatutako bailara sakonek nortasuna ematen diote Bizkaiaren barrualdeari, zeinak dei egiten baitie kontrastez beteriko naturaz gozatzen dakitenei, gustukoan duten kirola bertan egin dezaten, aire zabalean.

Nabarmentzeko eskualdeetako bat **Durangeldea** da, besteak beste **Atxondoko bailarara** eta **Urkiolako natura-parkera** hurbilduko baitzaitu. **Arratiako eta Urduñako** bailarak xarma landatarrez jositako ohiko tokiak dira.

Halaber, itsasotik hurbilen dauden eskualdeetatik (**Uribetik, Urdaibaitik** edo **Lea Artibaitik**) igarotzen diren ibilbide txiki eta handiez goza dezakegu, edota **GR-38 ibilbideaz**. Azken horri **ardoaren eta arrainaren ibilbidea** ere esaten zaio, bertatik ibiltzen zirelako Arabako Errioxako ardoa iparraldera eramane eta, bueltan, Bizkaiko portuetatik zetorren arraina gatzunetan ekartzen zuten mandazainak.

Mendebaldeak, bestalde, itsas industriaren aztarnak erakusten ditu, antzinarotik burdina-hobien kalitatearen berri eman duten mendiak baitauzka. **Peñas Negras Ingurumen Interpretazioko Zentroak**, berriaz, eremu bitxi horretatik egiteko dauden ibilbideei buruzko informazioa ematen du. **Enkarterri eskualdeak Ordunteko** mendietatik eta **Armañongo natura-parketik** igarotzen diren hainbat ibilbide eskaintzen ditu.

Oinez egiteko ibilbideak

Natura-ingurunea hurbiletik behatu, isiltasunaz gozatu eta aire garbia arnasteko ibilbide txiki, ertain eta handiak.



Zaldi gainean egiteko ibilbideak


Hainbat zentro hipikok ematen dute aukera inolako zalantzarik gabe "aztarna" utziko dizun esperientzia honetaz gozatzeko.



33

Bizikletaz egiteko ibilbideak

Bizikletarientzat atondutako bide berdeak, trenbide zaharrak eta beste ibilbide batzuk.



Bizkaiak golf-zelai ugari dauzka kostaldean nahiz barrualdean sakabanatuta, eta abonamendurik ez dutenak ere sar daitezke. Gainera, haurrentzako eta helduentzako ikastaroak ematen dituzte. Golf-zelaien artean, honako hauek dauzkagu: **Meatzegi Golf** Ortuellan, Severiano Ballesterosen diseinuarekin; **Martiartu Kluba golf-eskola**; Pitch&Putt modalitatean, **Urgoitiko golf-jauregia**, Mungian, eta **Dima Golf Center**, Dimako errepidean; Derion, **Celles golf-eskola**.

Bizkaiak golf-zelai ugari dauzka kostaldean nahiz barrualdean sakabanatuta, eta abonamendurik ez dutenak ere sar daitezke. Gainera, haurrentzako eta helduentzako ikastaroak ematen dituzte. Golf-zelaien artean, honako hauek dauzkagu: **Meatzegi Golf** Ortuellan, Severiano Ballesterosen diseinuarekin; **Martiartu Kluba golf-eskola**; Pitch&Putt modalitatean, **Urgoitiko golf-jauregia**, Mungian, eta **Dima Golf Center**, Dimako errepidean; Derion, **Celles golf-eskola**.

Molinar termak

Urduñako bainuetxe-hotela XVIII. mendeko eraikin batean dago, udalerriaren erdialdean. Gimnasioa, sauna, spa (masaje-zerbitzua barne) eta urpeko txorrotadun igerilekua (ur minerala) dauzka.

BURU

eta

BIHOTZ

...edo

ZERUAN

Bizkaikoa hain da paisaia ikusgarria, ezen merezi baitu airetik ikustea, **globoan. Urduñako bailara** ikaragarria da, eta 800 metrotik gorako horma bertikalak dituen zirku batek ikuspegi ezin hobeak eskaintzen dizkigu. Neguan, **Urdaibai** ere aukeratu dezakezu, Gernika-Lumotik abiatuta itsasadraren bokaleraino joanda. Edo, bestela, **Gorbeia**ko **natura-parkea**.

Bestetik, **parapentean** ibil zaitezke kostaldeko labarretan (hala nola, **Sopelan** eta **Getxon**) edo barrualdean, **Urduñan** edo **Arriolako esparruan**, **Santa Marinen**. Hasiberrientzat, kirol hau ezagutzen hasteko eskola asko daude.

Lurreekin harremanetan jartzen garenean, izpirituak bat egiten du ingurunearekin, ongizatea eta eguneroko errutinekiko deskonexioa eraginez.

Eskualde batzuek proposatzen dizkizuten baso-bainuak esperientzia interesgarria izan daitezke, edota natura-ingurune bete-betean yoga egitea.



Natura!

Liluratuko zaitu hona

JOATEAK

HERRIZ HERRI

36

A
GOOD
IDEA!

San Tomas azokak Gabonen hasiera markatzen du. Bertan, abereen erakusketak ikus daitezke, eta herrialdeko ohiko produktuak erosi: gazta, txakolina, ezti, erroskillak, barazkiak, frutak, artisautza... Musika ere azokaren zati da, eta hortxe izaten dira festa-giroa alaitzen duten bertsolariak, trikitilariak eta txalapartariak. Milaka lagun biltzen dira Bilboko Hareatzan eta Plaza Barrian, batez ere taloa (txorizoz, txistorraz, odolkitz eta abarrez betetako artopila) eta sagardoa edo txakolina dastatzeko.



San Tomas

Nekazaritza- eta abeltzaintza-azokak oso lotuta daude Euskadiko udalerrri askotako eguneroko zereginetara. Azoketan, baratzeko produkturik onenak eta animaliarik bikainenak aurkezten dituzte, eta, halaber, sektoreko profesionalen topalekua ere badira. Jendeak gustura egiten du bat tradizioaren aztarna nagusitzen den elkarretaratze horietan, eta jai-giroa aparta sortzen du.



Nekazaritzako AZOKAK eta ABELTZAINZAKO

BILBAO
BIZKAIA

Neguan, Abadiñoko San Blas azoka, Amorebieta-Etxanoko emakume nekazari eta artisauen azoka, Sopuertako txerrikiaren azoka eta Bilboko San Tomas azoka nabarmentzen dira. Udaberria Balmasedako Erdi Aroko azokarekin eta Gueñesko San Jose azokarekin estreinatzen da, eta, udan, Gernikako Piperraren Eguna nabarmentzen da, barazkien eta fruten azoka eta euskal artisautzaren salmenta gaineratzen baitzaizkie piper-dastatzeei. Irailean, Muskizko azoka egiten da. Ekoizpen ekologikora hurbiltzeko, Durangoko azoka ekologikoa aukera ona da.

Udazkenean jada, urriko azken astelehenean, Gernika-Lumo osoa hartzen duen jai-giroan, Euskadiko nekazaritza-azoka garrantzitsuen gailentzen da. Gainera, udalerrri horrek urteko astelehen guztietan ematen dio aterpe bertako azoka ezagunari, eta, urriko lehenengo astelehenean, abeltzaintza-azoka egiten du.

Zallako Gangas Eguna benetan berezia izaten da, eskualdeko baserri-azoka zaharrena baita, tokiko artisau-produktuen erakusleihoa. Azaroan, eskualdeko nekazaritza- eta abeltzaintza-azokarik garrantzitsuen egiten du Markina-Xemeinek. Orozkok, berriz, Santa Luzia azoka tradizionalen egiten du, non terrena behien ganadutegiak lehiatzen baitira.

37

Benetako PASIOZ

Bizkaian, debozio-erakustaldi herrikoi ugari izaten dira; horien artean, ordea, bereziki nabarmentzen dira Balmasedakoa eta Durangokoa.

Dirudienez, XIX. mendearen azken hamarkadan hasi ziren Balmasedan Jesukristoren pasioa antzeztzen, eta 1963an eszenaratu zuten "Gurutztzaketa". **Balmasedako Gurutze-bide Biziduna** deiturikoan, bertako herritarrek hartzen dute parte, 500 lagunek baino gehiagok: ohiturak, promesak eta bestelako arrazoiak tarteko, herritarrek bihurtzen dira urteroko ospakizun paregabe horren protagonista, eta sekulako sinesgarritasunez antzeztzen dituzte Jesusen bizitzako unerik dramatikoena.

Durangoko Pasio Biziduna beste batzuetatik bereizten da, hiru egun irauten dituelako eta eszenatoki bakarrean egiten delako. XVII. mendean izan zituen hastapenak, eta 150 lagun inguruk hartzen dute parte.

www.viacrucisbalmaseda.com

Tradizioak XXI. mendean


Gizarte bat zehazten duten ezaugarrien artean, folklorea dago, eta, hor barruan, dantza. Lurralde hau aberatsa da dantzetan, eta festetan eta ospakizun erlijiosoetan dantzatu ohi da. **Aurrekua** da dantzetako bat, omenaldia egiteko balio duen ohorezko dantza; gaur egun, ezkontzetan, biltzarretan eta abarretan dantzatu ohi da. Halaber, **ezpata-dantza** nabarmentzen da, oroimenari edo ohore-emateari lotua. Arratiako bailaran bereziki, erromerietan ezin daitezke falta ez **jota**, ez **arin-arina**.



Txistulariak

Nortasun-soinua

Euskadiren nortasunaren zati diren antzinako zenbait musika-tresna daude. Tradizioz, erromerietan eta jai landatarretan jotzen dira, eta batzuk musika kultuaren parte dira. Ezagunen artean daude lau zulodun **txistua** (txirula mota bat) edo **txirula**; haize-instrumentuk dira, baita ere, **trikitixa** (akordeoi mota bat), **dultzaina**, **gaita** eta **alboka** (txahalaren adarrekin egindakoa). **Txalaparta** perkusio-tresna bat da, eta baliteke jatorrian komunikatzeko bitartekoa edo sagardoa ekoizteko tresna izatea, makilen mugimendu bertikala dela-eta.



Balmasedako pasioa

Dantzariak



DURANGOKO AZOKA

Euskal kultura azokan

40

Udalerri bizkaitar horretan, urtero egiten da **Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka**, abenduko lehenengo astean beti, Konstituzioaren zubian. Euskal kulturaren erakusle horik garrantzitsuentzat jotzen da, toki ezin hobe delako Euskadiko argitaletxe eta diskoetxeen lanak ezagutzeko. Historian, liburu-eta disko-azoka baino askoz ere gehiago izan da ekitaldi hau, euskaldunen eta euskal kulturaren interesa dutenen topalekua baita.

Azokak irauten dituen egunetan, milaka lagun irteten dira kalera jai-giro onenaz gozatzeko prest. Zalantzarik gabe, zuzeneko ikuskizunak ikusteko, euskal dantzak ikasteko eta herriko kaleak betetzeko modurik onena da.



GUREAZ HARRO

A GOOD IDEA!

41

bilbao 
basque
FEST

Bilbon, kulturarekin, kirolarekin eta gastronomiarekin uztartzen dira Aste Santuko prozesioak. **Bilbao Basque Fest** jaialdiari esker da hori horrela, egitasmoak tradizioa eta modernotasuna batzen dituelako, bost ardatz hauetan oinarrituta: **kultura, musika, market, sport eta gourmet**, euskal kulturaren ikur nagusia den lauburuak lotuta. Arte-erakusketak, dantza eta kaleko antzerkia, haurrentzako animazioa, artisautza-azokak, kontzertuak, euskal diseinuaren erakusketak eta herri-kirolen erakustaldiak dira jardueretako batzuk.



MILA ehuni

A
GOOD
IDEA

Pilota-partida batera bertaratzuz gero, horixe da entzungo dituzun oihuetako bat; izan ere, esan genezake joko hau betidanik egon dela apustuari lotuta. Animatzen bazara, jakin ezazu pilotarien kategoriaren eta katedraren iritziaren arabera jokatzen dutela artekariek. Horren arabera, saioa kolore batekin edo bestearekin irekiko da. Halere, partidak aurrera egin ahala, guztia alda daiteke, eta dirua aurkariaren aldera pasa. Beraz, argi ibili!



kusten dituzun pilotak kautxuz eginda daude, joko mota aldatu zuen materialaz, alegia. Kautxuak pilotak "biziagotu" zituenez, hobeto errebota zezaketen, eta horrela sortu zen paretaren kontrako zeharkako jokia, gaur egun frontoietan ikusten dugun hori. **Euskal pilota** oso-oso gurea dugu, eta munduan jokatzen diren beste pilota-joko batzuetatik bereizten da. Hiru instalazio motatan joka daiteke: plaza libreko frontoian, ezkerreko pareta duenean eta trinketean.

Jokatzeke modu asko daude, eta bakoitzak pilota jakin bat eskatzen du. Modalitateen artean, besteak beste, **esku-pilota**, **pala eta zesta-punta** daude, eta, azken horren barruan, **joko garbia** eta **erremontea**. Halaber, **sareko** modalitatea ere badago, edota zuzeneko modalitateak (adibidez, **paxaka**, zeina trinketean jokatzen baita, eta **laxoa** eta **errebotea**, plaza librekoak biak). Ikusi partida on bat, herri gehienek frontoia dute-eta.

Markina-Xemeingo frontoiari "**pilotaren unibertsitatea**" esaten zaio, bertan ikasitako asko zesta-puntako figura handi bihurtu zirelako. Askok eta askok Ameriketara emigratu zuten, eta lur amerikarretan sortu ziren Jai-Alai frontoietara esportatu zuten kirol hau.

Gernikako Jai-Alai frontoia zesta-puntaren marka da munduan, eta, urtero, bi txapelketa garrantzitsu jokatzen dira bertan, zesta-puntako munduko jokalaririk onenak ikusteko aukera ematen dutenak: **Jai Alai World Tour** udan, eta **Jai Alai Winter** neguan.

LANA kirol

AIZKOLARIAK: enborrak mozten dituzte

SEGALARIAK: belarra mozten dute

ABERE-PROBAK: animaliek harriak arrastatzen dituzte

GIZA PROBAK: pertsonen harriak arrastatzen dituzte

HARRI-ZULATZAILEAK: harriak zulatzen dituzte

TRONTZA-JOKOA: enborrak trontzarekin mozten dituzte

HARRI-JASOKETA: harriak altxatzen dituzte

SOKATIRA: sokatik tira egiten dute

TXINGA-EROATEA: txingak (pisuak) eramaten dituzte

FARDO-BOTATZEA: fardoa jaurtitzen dute

Aizkora-proba

Jatorriagatik esaten zaie herri-kirol

Euskal ingurune landatarreko lanek askotariko kirol-jarduerak sorrarazi dituzte, **herri-kirolak** deiturikoak. Hala, **aizkolariak** enborrak moztetik atera ziren. Larrean belarra segatzetik, berriz, **segalarriak**. Eraikuntzarako harri handiak mugitzetik, **harri-jasotzaileak**. Premia beretik, **idi-probak** sortu ziren. **Sokatira** hain dago hedatuta, ezen federazioa baitaukate eta nazioarteko lehiaketak jokatzen baitituzte.

Marka hausteari dagokionez, Mieltxo Saralegi nafarrak dauka harri-jasotzaileen errekorra, 329 kg altxatzea lortu baitzuen. Aurretik, Iñaki Perurenak izan zuen, 322 kg-rekin. Halere, oraindik inork ez du hautsi Perurenaren marka hau: 1.000 aldiz jarraian altxatu zuen 100 kg-ko harri bat, bost ordu, lau minutu eta 46 segundotan.



herrikirolakbizkaia.eus

Harri-jasotzailea

Natura!

Asko gustatuko zaizu hauek

EROSTEA

NORTASUN- PRODUKTUAK

44



Ertia



Txakolina



Kaikua

Der apaindutako euskal **makila** batekin maitemindu zaitezke, edo zizelkatutako egurrezko **kutxa** batekin, edo **kaiku** batekin (jetzitako esnea bildu eta mamia egiteko egurrezko ontzia). Gainera, **kaikua** euskal jaka tipiko bat ere bada. Musika-tresnak gustuko badituzu, antzinako **alboka** aukeratu dezakezu, edo ohiko **txistua**. Halaber, zeramikazko **katiluak**, pitxerrak... daukazu, baita euskal motiboekin brodatutako mahai-zapiak ere, bufandez, zapatilez eta, nola ez, **txapelez** gainera. Edozein izango da opari ona.

Dagoeneko ohitzen hasi zara. Tradizioak emandako jakintzarekin egindako produktuak dira, beren lanbidea ondo ezagutzen duten **artisauek** eskuz eginak. Elikaduraren nahiz ohiko tresnen arloan izan, guztiei atzematen zaie herri honen **nortasuna**. Denda espezializatuetan erraz aurkituko dituzu. Horrela, hemengo oroigarriak onena eramango duzu etxera.



45

A
GOOD
IDEA!

Idea polita izan daiteke **antzinako La Encartada txapel-fabrika** bisitatzea, Balmasedan.

Ibilbide batean, txapelen eta eskutrapuen ekoizpena nolakoa zen erakusten dute.

Irteeran, besteak beste, benetako txapelak eros daitezke.



Guk hazitakotik

JATEN DUGU

Euskal sukaldaritza ospetsua berezi egiten duten sekretuetako bat da produktuak tratatzeko modua. Baratzeak, abeltegiak eta abeltzaintza-ustategiak **txikiak** dira, eta, beraz, aukera dute barazkiak eta animaliak **arduraz zaintzeko**.

Ekoizpen-guneak salmenta- eta kontsumo-guneetatik **hurbil** egoten dira, eta alderdi horrek ere **kalitatearen** alde egiten du. Aprobetxatu sasoiko produktuak hautatu eta eremuko edozein jatetxetan dastatzeko; gainera, ziur zoragarri artatuko zaituztela!



**A
GOOD
IDEA!**

Lurreko produkturik onenekin egindako errezetak dira: babarrunak sakramentuekin, barazki-menestra eta pistoa. Horiez gainera, behiaren, esneko arkumearen, txerriaren, baserriko oilaskoaren eta abarren haragiekin eta haragion eratorrieekin egindako errezetak daude, maisutasunez eginda gozatzen diren platerak. Dastatzea besterik ez zaizu falta.

0 km

0 km figuraren helburua da hurbileko ustategi txikietatik datorren generoa eta hurbileko produktu freskoekin egin-dako platerak identifikatzea.

Tokiko ohitura gastronomikoei eusteko eta nutrizioaren gainera interesari mesede egiteko beste modu bat da.

Bizkaian, jatetxe askok jartzen dute praktikan filosofia hori, eta tokiko produktuekin diseinatutako plateretan oinarritzen dute karta osoa edo zati bat.

Idea horri lotuta, **Slow Food** mugimendua dugu, zeinaren xedea baita sukaldaritza azkar-rrak dakarren guztiari aurre egitea eta produktuen kalitateari zorrotz begiratzea.



Horma Ondo Eretégia (Larrabetzu)

Etxeko sukalde, **jatetxe**

Sukaldaritza berria deiturikoak euskal gastronomia tradizionalan dauka jatorria, baina gure sukaldarien ekarpen bereziak aberastu egin du, sormenari esker berritzen jakin dutelako, gure sukalde arte bihurtu arte. Lurralde historiko guztitik dauden jatetxe ugari kasua da hori; asko landa-eremuetan daude, eta batzuek Michelin izarrak daukate. Beren sukaldaritza iraultzaileak zapo berriak bilatzen ditu etengabe, harritu eta seduzitu egiten duten formulen atzetik beti. Zain daukazu.

LEHIAKETAK ETA DASTATZEAK



Urteko sasoiak edozein dela ere, ziur Bizkaia etortzen zarenean lehiaketa-formadun hitzordu gastronomiko batekin topo egingo duzula: gaztak, gisatuak, ardoak... Sukaldaritza herrikoien jakintza izan da baina ez dira.

Lehiaketa horietan bai, parte hartzea da garrantzitsua; batez ere, prestatutakoa partekatu eta jai bihurtzea edo erakusgai dauden produktuak dastatzea. Begiratu egutegia, eta aukeratu agendarekin ondoen datorkizuna.

Urtarrila

Odolki eta txorizoen txapelketa Mungian

Otsaila

BasqueTxok

txokolate- eta kafe-jaialdia Balmasedan

Martxoa

Txerriaren azoka Sopuertan

Apirila

Txakolin Eguna Larrabetzun

Maiatz

Zallako Ardo Eguna

Ekaina

Txakolinaren Eguna Lezaman

Gereziaren azoka Errekatxo auzoan (Barakaldo)

Uztaila

Sukalkiaren Eguna (haragi erregosia) Mungian

Piperraren Eguna Gernika-Lumon

Abuztua

Aste Nagusiko gastronomia-lehiaketak Bilbon

Iraila

Sukalki-txapelketa (haragi erregosia) Larraurin

Untxiaren eta Sagardoaren Eguna Gernika-Lumon

Artzain Eguna Atxondon

Urria

Urriko lehen asteleheneko abeltzaintza-azoka Gernika-Lumon

Putxera-lehiaketa Balmasedan

Gangas Eguna (baserriko produktuak) Zallan

Artzain-gaztaren lehiaketa Gernika-Lumon

Mahats-bilketaren festa Balmasedan

Nekazaritza- eta abeltzaintza-azoka Markina-Xemeinen

Urriko azken asteleheneko nekazaritza-azoka

Gernika-Lumon

Abendua

Ogiaren Eguna Galdamesen

Txarriki Eguna Muruetan





50

Vittor Arginzoniz / Etxebarri jat.

IZARRAK

hiritik kanpo

A
GOOD
IDEA

Euskal sukaldaritza berritu egin denez, gero eta gazte gehiago dira mundu-mailako espazio gastronomikoan buru. Eneko Atxa, adibidez, zeru gastronomikoaren elitean dago, eta, bere hitzetan, sukaldean aritzeko duen moduaren helburua da "tokikotik zerbait unibertsala egin nahi duen plazer identitario bat lortzea".



Eneko Atxa/ Azurmendi jat.

Bilbon, Michelin izarra duten hainbat jatetxe daude; hala nola, **Zortziko**, **Nerua**, **Mina**, **Ola**, **Etxanobe Atelier** etal **Zarate**. Hiribildutik kanpo ere, natura osagai bihurtzen den inguruneetan, badira izardun jatetxeak. Hala, Larrabetzuko **Azurmendi** jatetxearen hiru Michelin izarrez gainera, non Eneko Atxa bere kabuz gailendu baita, Bizkaiko unibertsuak badauzka egindako lan aitortuari esker Michelin izarra irabazi duten jatetxeak. Honako hauek dira: **Borox** (Amorebieta); **Etxebarri**, Bittor Arginzonizena (Axpe); **Txispa**, Tetsuro Maedarena (Atxondo); **Andra Mari** (Galdakao); **Eneko**, Eneko Atxarena (Larrabetzu), eta **Garena**, Julen Bazena (Dima).

PINTXOAK

ezin hobeto ezkontuta

Pintxoen mundua oso sofistikazio-maila altuetara iritsi da, eta pintxo bakoitzarekin hoberen uztartzen den ardoa bertan egotea eskatzen du horrek. Lurralde historikoko edozein herritan ibil zaitezke **pintxo**z **pintxo**, gastronomia eta adiskidetasuna aldi berean landuz.

Zona jakin batzuetan, **pintxo**en **ibilbideak** daude, eta bakoitzak bere estiloa dauka. Kanpotik zotozenez, esperientziarekin bat egitea gustatuko zaizu, miniaturazko sukaldaritzaren jaki zoragarriek txoratuko baitzaituzte.




51

Natura! ESPERIENTZIAK SAREAN

Bizi zure esperientzia



Proposamenak askotarikoak dira, eta zoragarria da bidaian zeure kabuz aurkitzen joatea. Halere, errazagoa izan dadin, zenbait esperientzia programatuta eta oso ondo egituratuta dauzkagu, gehiago goza dezazun eta bertatik bertara eta zuzenean ikus dezazun Bizkaiko naturaren eta paisaien xarma.



reservabilbaobizkaia.eus/eu/256-natura-eta-paisaia

Esperientzia landatarra

Elorriko baserri batean. Euskal bizimodu landatarra eta baserritarren lanbidea ezagutzeko aukera galanta.



BILBAO
BIZKAIA

Hegaldia globoan

Bizi ezazu Aiaraldearen eta Nerbioiko ur-jauziaren gainetik globoz hegan egiteko esperientzia. Naturaren egundoko ikuskizuna, goi-goitik ikusia.



Zaldi gaineko paseoa Butroeko gazteluko harresietatik kanpo

Castillo de Butrón hipika-klubak ordubeteko paseoa eskaintzen du Butroeko gazteluko harresietatik kanpo, Plentziako abaniko famatua ikusi artekoa, eta zaldizkoen/amazonen argazki digital bat ematen du opari.



Nabigatzen, Urdaibaiko itsasadarraren barrualdetik

Nabigatu Urdaibaiko biosferaren erresebakiko itsasadarretik, gida "ipu-in-kontalari" batekin batera, mokadutxoak jan eta euskal musika tradizionala zuzenean ikusi bitartean.



Txakolina, natura eta paisaia

Hurbildu zaitetz txakolinaren mundura, eta ezagut ezazu gertuagotik, bodegaren batean.



Amets indianoa

Karrantzan (batez ere, Kontxa auzoan), indianoen etxe dotore eta ikusgarriak daude oraindik ere, arkitektura berezia eta lorategi zabalak dauzkatenak. Bisita gidatu batekin, berezienak ikusiko dituzu.



Baso-jolasak Urkiolako natura-parkean

Lehiakorak ez diren eta errespetuan oinarritzen diren jolasak, tokiko bizimodua eta tradizioak ezagutzeko.



POZALAGUA

1957ko abenduaren 28an aurkitu zuten, dolomia erauzten zuen inguruko meategi bateko lanei esker. Karrantzako Udalak harrobia ixtea erabaki zuen, munduko estalaktita eszentrikoen kontzentrazioarik handiena duen kobazuloa babes-teko. Armañongo natura-parkearen paraje bikainean dago.



NERBIOIKO UR-JAUZIA

Sortu eta gutxira, Santiago mendiko monumentu naturalaren paisaia pribilegiatuan kokatuta, Nerbioi ibaiak 270 m-ko altuera duen ur-jauzi ikusgarria gainditu behar du: Iberiar penintsulako turrustarik handiena da. Hortik hurbil eraikitako behatoki batetik ikus dezakezu jaitciera. Eurite-garaietan edo urtzaldietan joatea aholkatzen dizugu.



GORBEIAKO NATURA-PARKEA

1.482 m-ko gailurrak koroatuta, erreferentziazko tokia da euskal mendizaletasunerako, eta Bizkaia-aren eta Arabaren arteko muga finkatzen du. Paisaiak eremu harritsuak, larreak edo hariztiak eta pagadi eder-ederak dauzka, ia-ia 500 zulo katalogatu dituen multzo karstiko baten gainean.



URKIOLAKO NATURA-PARKEA

Paisaia malkartsuak gustuko badituzu, hau da zurea, natura-parke honek hainbat mendizerra, kareharritzko harkaitzak eta sakan nahiz bailara sakonak baitauzka, mendizaletasuna eta mendi-ibiliekiko zaletasuna sustatu dituzten gailurrak bazter utzi gabe. Anboto da bertako gailurrik garaiena, eta, Mari erreferente mitologikoaren koba bertan dagoenez, jende asko igo-tzen da bertara.



Hauxe da Bilbo Bizkaia. Itsasoak eta mendiak inguratzen dute lurralde historiko hau, Gipuzkoa eta Araba lurralde hurbilak lagun dituela, Euskal Autonomia Erkidegoa osatuz.



BARRUALDEKO TOKI INTERESGARRIAK

- | | |
|--|---------------------------------------|
| 1 Armañongo natura-parkea | 10 El Pobaleko burdinola |
| 2 Urkiolako natura-parkea | 11 Abellanedako Batzar Etxea |
| 3 Gorbeiaiko natura-parkea | 12 Loizaga dorrea |
| 4 Nerbioiko ur-jauzia | 13 Butroeko gaztelua |
| 5 Gernikako Batzar Etxea eta Arbola | 14 Arginetako nekropolia |
| 6 Pozalagua | 15 Arrolako oppiduma (Arratzu) |
| 7 La Encartada | 16 Foruko herrixka erromatarra |
| 8 Omako basoa | i Turismo Bulegoak |
| 9 Ziortzako monasterioa | |

BIDAIA JASANGARRI ETA ARDURATSUAGO BATEN ALDE

Erraz-erraza da: arduratsu jokatu bisitak egin, gozatu eta partekatu bitartean, zure bidaia zeure gozamenetik harago joan dadin, inguruneari eta jasangarritasunari ekarpena egin diezula jakinda.




- Bisitatu barrualdea goi-denboralditik kanpo: Bizkaia urte osoan dago zabalik.
- Ahal dela, erabili garraio publikoa: ez duzu aparkalekurik bilatu beharko, eta CO2-ko isuriak/karbono-aztarna murriztuko dituzu.

- Modu arduratsuan gozatu tokiez.

- Erabili enviromentally friendly diren ontziak: tuper, kantinplora... bererrerabilgarriak.

- Bisitan sortutako zaborra botatzeko, erabili edukiontziak.



- Integratu zaitez tokiko tradizio eta festetan.
- Esan hitzen bat euskaraz.
- Dastatu hurbileko eta 0 km-ko produktuak.
- Erosi tokiko produktuak.

INFORMAZIO PRAKTIKOA

BILBAO TURISMOA
www.bilbaoturismo.net
BIZKAIA TURISMOA
www.visitbiscay.es
EUSKADI TURISMOA
www.turismo.euskadi.es

TURISMO-BULEGOAK

BILBO

- Plaza Biribila 1, Terminus eraikina · 944 795 760
- Mazarredo zumarkalea 66 (Guggenheim Bilboaren ondoan)
- Aireportua 944 031 444

BIZKAIA

- BAKIO
946 193 395 · www.bakio.eus
- BALMASEDA - ENKARTUR
946 802 976 · www.visitenkarterri.com
- BERMEO
946 179 154 · www.bizibermeo.eus
- DURANGO
946 033 938 · www.turismodurango.net
- ELORRIO
946 820 164 · www.elorrioturismo.eus
- GERNIKA-LUMO
946 255 892 · www.gernikainfo.eus
- GETXO
944 910 800 · www.gebo.eus/turismo
ITG - Informazio Turistikoko Gunea
Marxotik abendura · 615 75 62 90
- GORLIZ
946 774 348 · www.visitgorliz.eus
- KARRANTZA-HARANA
946 806 928 · www.karrantza.org
- LEKEITIO
946 844 017 · www.lekeitioturismo.eus
- MUNDAKA
946 177 201 · www.mundakaturismo.com
- ONDARROA
946 831 951 · www.ondarroa.eus
- URDUÑA
945 384 384 · www.ordunaturismo.com
- OROZKO
946 122 695 · www.gorbeiaeskadi.com
- PLENTZIA
946 774 199 · www.visitplentzia.com
- PORTUGALETE
944 729 314 · www.portugalete.org
- SANTURTZI
944 839 494 · www.visitsanturtzi.eus
- SESTAO
944 070 985 · www.sestao.eus
- SOPELA
944 065 519 · https://turismo.sopela.eus/
- ZIERBENA (La Arena)
662 547 468 · www.zierbena.net
(urtaroaren arabera/aldizka irekitzen da)



GARRAIOA

- AIREPORTUA
www.guggenheim-bilbao.eus · 944 359 000
www.aena.es/es/bilbao.html
- ITSAS BIDAIAK ETA FERRYA
Bilbo-Portsmouth ferrya 902 108 147
www.brittany-ferries.es
- TRENAK
RENFE. Abandoko Indalecio Prieto geltokia
Plaza Biribila 2
Bezeroei laguntzeko tel. ADIF 912 432 343
Bezeroei laguntzeko tel. RENFE Bilbo 944 879 222
Bezeroei laguntzeko tel. RENFE 912 320 320
www.renfe.com / www.adif.es
- EUSKOTREN
Bezeroei laguntzeko tel. 944 333 333
www.euskotren.eus · 944 019 900
- FEVE. La Concordia geltokia
Ballen kalea 2
- AUTOBUSAK
Bilbao Intermodal (autobus-geltokia)
Gurtubai 1 · 944 395 077
www.bilbaointermodal.eus
- Bilbobus (udal-autobusak)
946 855 000/ 944 790 981
www.bilbao.net/bilbobus
- Bizkaibus (autobusak, probintzia eta aireportua)
946 125 555 · www.bizkaia.eus
- BILBOKO METROA
946 855 000 · www.metrobilbao.eus
- TRANBIA
944 333 333 · www.euskotren.eus
- TAXIAK
Radio Taxi Bilbao
944 448 888 · www.taxibilbao.com
- Tele Taxi
944 102 121 · www.teletaxibilbao.com
- Radio Taxi Nervión
944 269 026 · www.radiotaxinervion.com
- Gebon:
BIZKAITAXI
www.bizkaitaxi.eus / 94 491 53 53
- GETXOBIZI
www.nextbike.es / 900 29 35 51
- BIZIKLETAK ALOKATZEKO ZERBITZUA
Bilbaobizi
946 564 905 · www.bilbaobizi.bilbao.eus

OROKORRA

- LARRIALDIAK 112
INFORMAZIO OROKORRA 010
(Bilbo udalerri barruko deietarako)
944 010 010 (Bilbo udalerrikan kanpoko deietarako)
- KIDEGO KONTSULARRAREN BULEGOA
944 706 426
- HERRITARREN ARRETA BILBOKO UDALA
944 204 200
- ERREPIDEI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA
011
- GALDUTAKO GAUZAK
944 204 981 / 944 205 000

OSTATUAK

- NEKATUR/LANDA-OSTATUAK
943 327 090 · www.nekatur.net
946 870 402 (Ihobe) · www.ekoetxea.eus
- HOTELEN ELKARTEA
www.destinobilbao.com
- XARMA, Euskal Herriko ostatu xarmagarrien elkarte
www.xarmahotels.com

BILBOKO MUSEOAK

- GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA
www.guggenheim-bilbao.eus · 944 359 000
- ARTE EDERREN MUSEOA
www.bilbaomuseum.eus · 944 396 060
- ARTE SAKRATUAREN MUSEOA
www.bilbaomuseum.eus · 944 320 125
- ITSASMUSEUM BILBAO
www.itsasmuseum.eus · 946 085 500
- ASTE SANTUKO PASIO IRUDIEN MUSEOA
www.museodepasosbilbao.com · 944 150 433
- BILBOKO ZEZEN MUSEOA
www.bilbaomuseum.eus · 944 448 698
- MUSEO VASCO / EUSKAL MUSEOA
www.euskalmuseum.eus · 944 155 423
- BERREGINEN MUSEOA
www.bilbokoberreginenmuseum.eus/es · 946 790 255
- ATHLETIC CLUB MUSEOA
www.sanmames.athletic-club.eus/museo · 944 661 100
- EUSKARAREN ETXEA
www.euskararenetxea.eus · 944 028 081
- ARKEOLOGIA MUSEOA
www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 944 040 990

BIZKAIKO MUSEOAK

KOSTALDEAN

- ARRANTZALEEN MUSEOA (Museo del Pescador)
Bermeo · www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 946 881 171
- BUTROIKO PLENTZIA MUSEOA
Plentzia · www.museoplentzia.org · 94 677 37 25
- RIALIA INDUSTRIA-MUSEOA
Portugalete · www.portugalete.org/ES-ES/RIALIA · 944 729 200
- SANTURTZI ITSAS MUSEOA
www.visitsanturtzi.eus · 944 839 494
- AGURTZA ONTZI-MUSEOA
www.visitsanturtzi.eus · 944 839 494
- BIZKAIA ZUBIA
Areeta Gebo) /Portugalete
www.puente-colgante.com · 944 801 012
- PUNTA BEGOÑA GALERIAK
Gebo · www.puntabegonageto.eus
- URDAIBAI BIRD CENTER
Gaitegiz-Arteaga · www.birdcenter.org · 699 839 202
- EKOETXEA URDAIBAI
Busturia · www.ekoetxea.eus · 946 051 275
- TXAKOLINGUEA - TXAKOLINAREN MUSEOA
Bakio · www.bizkaikoa.bizkaia.eus/txakolinguea · 946 028 513
- SANTA KATALINA ITSASARGIA
Lekeitio · www.lekeitioturismo.eus/es · 946 844 017

BARRUALDEAN

- SIMON BOLIVAR MUSEOA
Ziortza-Bolibar · www.simonbolivarmuseum.eus · 946 164 114
- DURANGOKO ARTE ETA HISTORIA MUSEOA
Durango · www.durangomuseum.eus · 946 030 020
- ENKARTERRIETAKO MUSEOA
Sopuerta · www.enkartermuseum.eus · 946 504 488
- EL POBALEKO BURDINOLA
Muskiz · www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 629 271 516
- EUSKAL HERRIA MUSEOA
Gernika-Lumo · www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 946 255 451
- GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOKO FUNDATZIOA
Gernika-Lumo · www.gernika-lumo.eus · 946 270 200
- GERNIKAKO BATZAR ETXEA
Gernika-Lumo · www.gernika-lumo.eus · 946 270 200
- BASONDO
Urdaibako basafunaren aterpea (Kortezubi)
www.basondo.com · 946 254 436
- MEDIZINAREN ETA ZIENTZIEN HISTORIAREN EUSKAL MUSEOA,
"JOSE LUIS GOTT"
Leioa · www.ehu.eus · 946 012 000
- OROZKOKO MUSEOA
Orozko · www.orozkomuseum.eus · 946 339 823
- EUSKAL HERRIKO MEATZARITZAREN MUSEOA
Gallarta · www.meatzaldea.eus · 946 363 682
- BALMASEDAKO HISTORIAREN MUSEOA
Balmaseda · www.visitenkarterri.com · 946 802 976

LA ENCARTADA FABRIKA MUSEOA
Balmaseda · www.bizkaikoa.bizkaia.eus · 946 800 778
VALENTÍN DE BERRIOTXOA MUSEOA
Elorrio · www.visitelorrio.com · 946 820 164
LOIZAGA DORREA. ANTZINAKO AUTOEN ETA AUTO
KLASIKOEN MUSEOA
Galdames · www.torreloizaga.com · 672 248 759
BURDIN HESIAREN OROIMENAREN MUSEOA
Berango · www.cinturondelherro.eus · 946 682 143

ANTZASTI MUSEOA
Dima · Artaun auzoa 35, 48141,
www.antzasti.eus · 628 32 22 75
MUSEO DE URDUÑA / URDUÑA HIRIKO MUSEOA
Urduña - ordubahia.org · 635 751436
KARPIN FAUNA, BASAFAUNAREN
HARRERA-ZENTROA.
Karrantza
www.bbkarpinfauna.eus
946 107 066

HONTZA MUSEOA FUNDATZIOA.
Mañaria · www.hontzamuseum.eus · 946 216 555
IZENADUBA BASOA
Euskal mitologia-parkea. Olentzeroren etxea
Mungia · Landetxo Goikoa baserria
www.izenaduba.com · 946 740 061

DOLOMITAS FABRIKA MUSEOA
Karrantza · www.visitenkarterri.com · 946 806 928
KONTZEJU ZAHARRA INTERPRETATZIO-ZENTROA
Markina Xemein · www.learitbaiturismo.com/es/hacer/detalle/
kontzeju-zaharra · 618 595 593
MUÑATOIZKO GAZTELUA
Muskiz · www.visitenkarterri.com · 629 271 516
ANGURRETA HARROBIA ARTE ESPAZIOA
Mañaria · angurreta@gmail.com

NATURAGUNEAK

- URDAIBAIKO BIOSFERAREN ERRESERBA
www.urdaibai.eus · Tel.: 94 403 23 60
946 870 402 (Ihobe) · www.ekoetxea.eus
- GORBEIAKO NATURA-PARKEA
946 122 695
www.gorbeiaeskadi.com
- URKIOLAKO NATURA-PARKEA
946 814 155 · www.urkiola.net
- ARMAÑONGO NATURA-PARKEA
946 560 079 · www.visitenkarterri.com
- POZALAGUAKO KOBAZULOA
www.cuevadepozalagua.eus
- SANTIMAMIÑEKO KOBAZULOA
santimamiñe.com
- OMAKO BASOA
www.bizkaia.eus/es/web/bosque-oma-basoa



TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO GARA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



visitbiscay.eus
bilbaoturismo.net



BILBAO
BIZKAIA
be basque

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

